

Gure zonalde berdeak, mendiak, baserriak... oso abiadura azkarrean galtzen ari gara [Concepto](#) entzilopediak adibidez argi uzten du.

Haur hezkuntzako goi mailako zikloak aukera eman digu gizartean eta batez ere haurrengan naturak duen garrantzia. Gure ustez, haurra eta naturaren arteko harremana garrantzitsua baita hauen garapen integrala bermatzeko.

Hiri handietako hurrek naturarekin daukaten harreman faltaz kezkatuta gaude, eta hori gutxi balitz, lehen sektorearen informazio ezak ere kezkatzen gaitu [Sigmaearth](#). Beraz, haurren eta gazteen naturarekiko harreman falta horri erantzun bat emateko baserri bat antolatzeko asmoa dugu. Bertan Bilbo eta inguruetako herritarrak baserriko bizitzarekin esperimendu eta ikasteko aukera izango dute.

Hurrengo hauek dira gure baliorik garrantzitsuenak:

### **Euskal Herriko lehen sektorea bultzatu**

Euskal Herriko lehen sektorea bultzatzea funtsezkoa da gure ekonomiaren eta komunitatearen etorkizunerako. Tokiko nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza irteerak indartuz, gure inguruko produktuak lehenesten ditugu, kalitate handiko elikagaiak eskainiz eta lanpostu egonkorak sortuz. Era berean, bertako ekoizleei laguntzen diegu, haien lana balioan jarri eta ekintzailatza sustatuz.

### **Naturarekin harremana**

Haurrak astelehenean baserrira iristen dira eta aste osoan zehar, ekintza eta irteera desberdinen bidez, jolasten ikastea da gure helburu nagusia. Baserri honetako lan ezberdinez arduratuko dira hauen funtzio eta eginbeharrak barneratzeko. Naturarekin harremana indartzea ere helburutzat daukagu eta inguratzen dien horri buruzko informazioa jasotzeko aukera ere izango dute.

### **Gure baliabideak nondik datozen ikastea**

Kontsumitzaileek gure baliabideak nondik datozen jakitea garrantzitsua da, elikadura katearen gardentasuna eta jasangarritasuna bermatzeko. Ekoizpen prozesuak eta jatorria ezagutzeak kontsumitzaileei erabakitzeak ahalmena ematen die, eta ekoizleek euren jardunbidea hobetzeko eta kontsumo arduratsua bultzatzeko aukera dute.

### **Ekofriendly**

Ekofriendly praktikak eta produktuak erabiltzea ezinbestekoa da ingurumenaren zaintzarako eta etorkizun jasangarria lortzeko. Euskal Herrian ekoiztutako produktuak modu ekologikoan

landatzea eta prozesatzea, ingurumenean eragin negatiboa murriztuz, gure komunitatearen eta planetaren osasuna babesten du.

## **0 Km**

0 Km kontzeptua lehenetsiz, bertako produktuak kontsumitzea sustatzen dugu, garraioak eragindako CO2 isuriak murriztuz eta elikadura freskoago eta osasuntsuagoa bermatuz. 0 Km ereduak, gainera, tokiko ekoizleen ekonomia indartzen du eta kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko lotura sendoagoa sortzen du, elkarrekiko konfiantza eta lankidetzak bultzatuz.

## **Gure baserriko produktuak saltzea**

Gure baserriko produktuak salduko ditugu, esate baterako, esnea, gaztak, jaboia, tomateak... etab. GURE BARATZETIK ZUEN PLATERRERA izango da gure leloa, frogatuta dagoelako produktu freskoak dendetakoak baino osasuntsuagoak direla, eta guri, gure bezeroen ongizatea beharrezkoa iruditzen zaigu. Bestalde, haurrei baserriko elikagaien boterea ere transmititu nahi diegu, prozesatu gabeko eta freskoak diren produktu hauen beraiengan dituen eragin positiboak erakutsi eta dendetako produktu ultraprozesatuak desnormalizazio batera eramateko helburuarekin. Azkenik bertako produktuak kontsumitzeak ekonomian ere duen eragina erakutsi nahi diegu munduari, nola multinazionalei dirua eman beharrean, bertako biztanlerian mugitzeak enpresa txiki hauei aukera ematen die aurrera egiteko eta auzokide duzun familia hori aurrera eramateko.